

ERABILERA ANITZEN TRENA

Gero eta jende gehiago hartzen zuen Donostiatik Gasteizera joaten zen trena. Batzuk ibilbide osoa egiteko, beste batzuk zati bat, baina eserlekuak ia beti beteta eramaten zituen.

Hasiera batean, trena, astelehen goizean ateratzen zen Donostiatik eta arratsaldean ailegatzen zen Gasteizera, eta ostegunetan kontrako bidaia egiten zuen, hau da, astean bitan egiten zuen ibilbidea.

Denborarekin, trena erabiltzen zuen pertsona kopurua handituz joan zen, gero eta jende gehiago lekurik gabe geldituz, horregatik astean zehar egiten ziren bidai kopurua igo zen bostera iritsi arte.

Hasieran dena ondo zihoan, trenak bere bidaiak egiten zituen eta jendea pozik zegoen lekurik gabe geratzearen arazoa konponduta zegoelako. Baina hortik gutxira, egun batean, trena ordu laurdeneko bidaia zeramanean, zarata arraro bat ateratzen zuen eta handik metro gutxi batzuetara bidaiari amaiera eman zion.

Hurrengo egunean trena konpontzera joan ziren, eta hiru egunetan berriz martxan zegoen, baina bazekiten ez zuela asko **iraungo** horrelako erritmoa eramanez. Arazoa ez errepikatzeko, bi konponbide aurkitu zituzten: lehenengoa, aurreko egoerara bueltatzea, hau da, astean soilik bi bidai egitera, eta bigarrena, bidai kopurua mantentzea baina bigarren tren bat jarritz. Lehenengo soluzioa ezinezkoa zela ikusita, beste tren bat jartzea erabaki zuten.

Hortik gutxira, makina berria Donostiako geltokian zegoen. Ez zen berria, Madrilen erabiltzen ez zuten bat baizik, baina fabrikatik ateratako bat zirudien. Orain, makinista berria behar zen, eta hori ere berehala aukeratu zuten. Jende asko aurkeztu zen lanpostua lortzeko, eta azkenean, proba batzuk egin ondoren, Julenentzat izan zen.

Julen altsasuarra zen, baina berak urte bat bete baino lehenago, bere aitak lana Madrilen aurkitu zuen, eta familia osoa hara joan zen bizitzera. Bertan hazi, ikasi, eta ezkondu egin zen, eta duela hiru arte, soldata, makinista moduan ateratzen zuen. Azken denboraldi horretan, berak egiten zuen ibilbidea kendu egin zuten, eta Julen lanik gabe gelditu zen.

Jakinarazi zuenean berak erabilitako trena berriz martxan jarriko zutela, berehala mugitu zen lanpostua berreskuratzeko. Bizilekuz aldatzea ezin zion grazia handirik egiten, baina Altsasu izan zitekeela entzun zuenean, ideia gehiago gustatu zitzaion, betidanik pentsatuta zeukalako noizbehin bere herrira bueltatzea.

Probak pasa zituen eta handik aste batera Julen eta bere familia Altsasun zeuden bere etxe berrian. Bazekien gogorra izango zela inor ezagutzen ez zuen leku batera joatea, baina ez zion garrantzi handirik eman. Bera makinista izan nahi zuen.

Laster hasi zen lanean. Goizetan edo arratsaldetan ateratzen zen Donostia edo Gasteizeko geltokitik, geldialdia egiten zuen Altsasuko geltokian, eta hurrengo egunean edo arratsaldean amaitzen zuen bidaia.

Julen berehala ohitu zen bere bizimodu berrira. Madrilen lagun asko zeuzkan, eta egunean zehar jende asko ikusten zuen, Altsasun ordea oraindik lagunik ez zeuzkan, eta ia egun osoa makinan sartuta igarotzen zuen inor ikusi gabe. Hala ere, Madrilen sentitzen zituen tristura eta bakardadea desagertu egin ziren, eta alaitasuna eta lasaitasuna eskaintzen zizkion herri horretara berehala moldatu zen.

Egun guztiak ez ziren berdinak, batzuetan eguzkia ateratzen zen, traiektua dibertigarria eginez, baina beste batzuetan, euria edo elurra egiten zuen, eta egun horiek gogorak eta nekagarriak izaten ziren, baina egunero pozik zihoan herrira bueltatuko zela jakinda. Ez zekien zergatik, baina Altsasuk zerbaite berezia igortzen zion, bertan gustora sentitzen zen.

Egunak, asteak, hilabeteak, ... igarotzen ziren eta Julen geroz eta alaiago bizi zen. Gainera ordurako harreman berezi bat zeukan trenarekin.

Baina udazkeneko egun batean, euria eta euria ari zuenean, trena Donostiako bidean zihoala istripu bat izan zuen. Julen zauririk gabe atera zen, baina bai tren-makina eta bai bagoiak suntsituta gelditu ziren.

Berehala beste tren bat jarri zuten bere ordean, baina Julenentzat ez zen berdina. Bestearekin seguruago sentitzen zen.

Hasiera batean, trena konpontzea pentsatu zuten, baina bere egoera eta adina ikusita, berehala ideiaz aldatu zuten, ez zuen pena merezi, hobeto zen beste berri bat ekartzea. Juleni ideia ez zitzaion batere gustatu, baina nagusien erabakia zenez, horren kontra egin zezakeen gauza bakarra, onartzea zen.

Denbora aurrera jarraitu zuen, eta Julen gero eta tristeago bizi zen. Jadanik ez zuen sentitzen alaitasun hori. Lehen hain dibertigarriak egiten zitzaizkion bidai horiek, orain aspergarriak eta monotonoak iruditzen zitzaizkion. Berak ez zuen espero betidanik erabiltzen zuen makina ez erabiltzeagatik, horrelako egoerara helduko zenik.

Egun batean, etxean zegoela, ideia bat bururatu zitzaion. Zergatik ez zuen berak trena konponduko? Hori pentsatu, eta hortik aurrera burura etortzen zitzaizkion pentsamendu guztiak horrekin lotuta zeuden, nola

konponduko zuen tren-makina, nola bagoiak, nondik lortuko zuen dirua, zer egingo zuen gero trenarekin, ...

Hasteko nagusiekin hitz egin behar zuen beraiei ideia zer iruditzen zitzaien jakiteko. Hauek ez zioten inolako arazorik jarri, eta gainera beraien laguntza ere eskaini zioten. Istripuengatik baztertuta zeuzkaten trenetatik, nahi zituen pieza guztiak hartzeko aukera eman zioten.

Julenek bazekien lan gogorra eta luzea izango zela, baina momentu horietan egin nahi zuena zenez, berehala jarri zen lanean. Lehen zeukan ordutegiarekin jarraitu zuen, baina Altsasura iristen zenean, ahal zuen denbora gehiena lantegian igarotzen zuen.

Egun bateko lana ia ez zen nabaritzen, baina egun bat, beste bat, eta beste bat han zegoenez lan egiten, poliki-poliki emaitzak ikusten joan ziren. Berak ez zekien noiz, baina ziur zegoen hasitako lana bukatuko zuela.

Horrela igaro zituen urteak eta urteak. Momentu txarrak izan zituen bai bere familiarekin, ia ikusten ez zituelako, eta baita berarekin ere, inoiz bukatuko ez zuen proiektu batean murgilduta zegoelako. Dena pikutara botatzeko zorian egon zen aldi bata baino gehiagotan, baina azkenean beti aurrera jarraitzen zuen. Bukatzerakoan sentituko zuen zorientasunarekin amesten zuen.

Azkenean egun batean lana bukatu zuen. Trena guztiz berritua zegoen eta berriz martxan hasteko prest. Nagusiek Julen zoriondu egin zuten egindako lanagatik.

Orain beste arazo bat zeukan. Hainbeste denbora kostatu zitzaion lana, bi segundotan pikutara joan zitekeela jakinda, beldurra ematen zitzaion. Orduan, nagusiei trenari beste erabilera bat ematea proposatu zien. Ideia, bagoiak taberna moduan erabiltzea zen, eta bera tabernaria izango zela esan zien.

Nagusiei ideia gustatu zitzaien, azkenean berak egindako lana zen eta haiek ezin zuten erabaki. Eta gainera, martxan jarrita, beti existitzen zen berriz puskatzeko aukera.

Hortik gutxira bagoi bat lantegitik atera zuten, Altsasura eraman, eta izugarrizko festa antolatu zuten taberna berriaren inaugurazioa ospatzeko. Jende asko bildu zen, eta denak hunkituta gelditu ziren Julenek egindako lanarekin.

Beste bagoiei irteera bat eman beharra zegoela ikusita, Juleni museo bat ipintzea bururatu zitzaion. Geltoki ondoan hutsik zegoen areto batean sartu zuten. Modu honetan jende guztia ikusgai zeukan, eta honek bizia ematen zion bai geltokiari, eta bai herriari.

Duela gutxi, udaletxeak Julenekin hitz egin zuen, erabilera berri bat pentsatuta zeukatelako horietako bagoi batentzat. Herrian turismo bulego baten falta zeukaten, eta horretarako erabiltzea proposatu zioten. Honek ideia ona zela ikusita, onartu egin zuen, eta orain herri guztia inaugurazio festa horren zain dago.

Egilea: Paula Jungitu